



Giro ezin hobean

Sanpedroetako kantu eta dantza jira eta sagardo dastaketa uztail hasieran egin ditu Ttakun KEK / 8

TXINTXARRI

Transmititu ez dena erakusten

'Tenprearen guarpena' izeneko dokumentala ondu du Oihane Puertas herritarrak, Idoia Lahidalga ikaskidearekin batera / 9

Urnieta bidean dagoen Zubillaga baserria jasaten ari den kalteen iguruan eztabaidatu du gehien udalbatzarrak / 2

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun KEK euskara sustatzeko hitzarmena berretsi dute 2021-2022 ikasturterako / 3

40 urteko lanari eta ibilbideari agur esateko unea iritsi zaio Sendoki kultur batzordeari / 4

Euskal presoen eskubideak aldarrikatzen jarraituko du Sarek udaran zehar / 5

Lasarteoriatarrek emaitza paregabeak, Val d'Aran by UTMB proban zein Beasaingo herri lasterketan / 10

Herriko gidariak Euskadiko mendiigoeren denboraldiari hasiera eman diote, Jaizkibelgo igoeran / 11

MERKEALDIA

MERKEALDIA

MERKEALDIA



R.P.S. 9/1/20

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   



Uztailaren 8an egindako uztaileko ohiko udalbatzarrarekin, udal korporazioak amaitutzat eman ditu ikasturte honetako ohiko bilkurak. TXINTXARRI

Txintxarri

Azkar batean landu ditu udalbatzarrak uztaileko gaitzerrendako puntuak. Bost puntu aurreikusi dituzte, eta, berehala iritsi dira laugarrenera.

2021eko martxoaren 11an, martxoaren 17an, apirilaren 8an, apirilaren 15ean eta maiatzaren 13an ospatutako akten onarpenarekin ekin diote uztaileko ohiko bilkurari. Agustín Valdivia alkateak puntua aurkeztu eta bozketa egin dute, eta aho batez onartuta igaro dira bigarren puntura.

Lasarte-Oriako udalerrien parkeak, lorategiak, berdeguneak eta zuhaitziak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratazio-espeditentearen onarpena landu dute. Hemen agertu dira lehen desadostasunak. PSE-EEK, EAJk eta ELOPek aldeko eman dute, eta EH Bildu, berriz, abstenitu egin da. Hortaz, puntua onartua geratu da.

Lasarte-Oriako udalerriko bakezko epaile titularra eta ordezkoko epailea izendatzeko proposamen berriaz aritu dira hirugarren puntuan. Aho batez onartu dute puntua, eta laugarren gaiari, ekin diote.

Horrek sortu du eztabaidarik zabalena. EH Bilduk, EAJk eta ELOPk elkarrekin aurkeztutako Urnieta bidean dagoen Zubillaga baserriaren gaineko mozio bat landu dute. Azaldu dute Zatarain urbanizazio berriaren lanak egiteko baserriaren alboan dagoen GI-3832 errepidetik pisu astuneko

la amaieran hasi da eztabaida

Ikasturteko azken udalbatzarra egin du Lasarte-Oriako udal korporazioak, eta, beste zenbait gairen artean, Urnieta bidean dagoen Zubillaga baserria jasaten ari den arazoaren inguruan eztabaidatu dute. Ia ordu eta laurden iraun du uztaileko ohiko bilkurak

kamioiak igarotzen hasi zirenetik, kalteak jasaten ari dela baserria. Jakinarazi dute baserri azpiko pisura ura sartzen dela, eta eraikinean oso agerikoak diren zartadurak eta hausturak agertu direla. Horrela, Zubillaga baserriaren egoera larria ikusirik, eraikinearen eta bertan bizi direnen segurtasuna lehenetsiz, EH Bilduk, EAJk eta ELOPek honako bost eskaera egin dituzte bilkuran: Jabeek aurkeztu dituzten hainbat txostenen arabera, GI-3832 errepidetik Zataraingo lanetara joan etorrian dabiltzan pisu handiko kamioiek errepidean eragindako kalteak eta errepidearen oinarriak baserriari eragiten dion presioa dela baserriaren kalteen erantzule; Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako departamentuari eskatzea, erantzukizuna onartu eta kalte handiagoak izan aurretik,

modu urgentean Zubillaga baserria babesteko GI-3832 errepidean egin behar diren lanak egitea; Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako departamentuari Zubillaga baserria babesteko lanak burutu bitartean, GI-3832 errepidetik Zataraingo lanetara 15 tonaz gaindiko kamioiak joan etorrian ibiltzeko baimena bertan behera utzi dezala; Zubillaga baserrian jazotako kalteak Zatarain Urbanizazioko lanak burutzeko tona handiko kamioien joan etorrien ondorioz izanik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako departamentuak egin behar dituen lanak burutzen ez dituen bitartean, Lasarte Oriako Udalak Zataraingo lanak burutzeko baimena berrikustea eta etorkizunean onartu daitezkeen baimenak Zubillaga baserriaren segurtasuna kontuan izanda ematea; Lasarte-Oriako Udalak

GI-3832 errepidearen alboan dagoen eta bere jabetzako den argiteriaren instalakuntzak errepidean behera datozen urak batu eta Zubillaga baserri bideratu ez ditzan beharrezko mantenu eta berrikuntza lanak burutu ditzala; eta Lasarte-Oriako Udalbatzarreko erabaki hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako departamentuari helarazi diezazkiola.

Eskaera horiek entzun ostean, gobernu taldearekin eztabaida sortu da, eta alderdi bakoitzak bere ikuspuntua jarri du mahai gainean. Luze eta sakon eztabaidatu dute gaiak, eta bozketa egin dute gero. Mozioak aldeko zortzi bozka eta aurkako beste hainbeste jaso ditu. Boto berdinketa egonenez, bozketa errepikatu dute, eta bigarrenez berdinketa gertatuta, gaia mahai gainean utzi behar izan dute.

Galderak eta erreguak

EAJko Boris Nogales izan da hitza hartzen lehena, eta erregu bat eginaz hasi du hitzartzea. Gogora ekarri du Donostiako Udalak Landaberri Ikastolara iristeko bidea noranzko bakarrekoa bihurtzeko duen asmoa, eta gobernu taldeari erregutu dio, lan horiek aurrera eraman daitezzen "trabarik" ez jartzea. Alkateak erantzun dio errepidean egin asmo dituzten lan eta moldaketek lasarteoriatarrei "eragozpenak" sortzen badizkie, beharrezko trabak jarriko dituztela hori hala gerta ez dadin.

Alkateak Harkaitz Millan Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol diputatuarekin izandako bilera galdegin dio gero. Jakin nahi izan du bilera horretan Askatasunaren parkean egin asmo duten proiektuaren inguruan hitz egin ote zuten. Alkateak erantzun dio ahaztu egin zitzaioala gai horren inguruan hitz egitea, baina bigarren bilera bat hitzartuta dutela, eta hor landuko duela.

Musika eskolako irakasleek datorren ikasturterako kontratu proposamenik ba ote duten galdetu du jarraian. Alkateak ez du erantzuna ematen jakin, eta Xabier Egea idazkariak hartu du hitza. Erantzun dio, berak dakienera arte, momentuz ez zaiela bidali datorren urtean jarraituko duten argitzen dien inolako dekreturik.

Skate eta parkour parkeez galdetu du gero. Jakin nahi izan du Hirigintza departamentua gai hori lantzen ari den ala ez, eta proiektu hori aurrera eramateko parte hartze prozesurik egitea aurreikusi duten edo ez. Alkateak erantzun dio gaia lantzen ari direla, eta skate eta parkour eremuak hasieran proposatu ziren ez beste leku batean eraikitzea aztertzen ari direla.

EAJko zinegotziaren hitzartzea amaituta, EH Bilduko Jon Martinek hartu du hitza, eta lurrazpiko zabor-erakundearen gainean galdetu du. Jakinarazi du datorren ostegunerako Hirigintza batzordea deitu dutela, eta gai ordenan ez duela lurrazpiko zabor-erakundearen gaineko punturik ikusi, eta erregutu die gaiari ahalik eta azkarren heltzeko. Alkateak erantzun dio bilera horretan landuko dutela gaia, eta bertan aurkeztuko dietela landu duten proposamena. Ia ordu eta laurdeneko saioaren ostean amaitu da uztaileko ohiko udalbatzarra.

Herria euskalduntzen jarraitzeko hitzarmena

Ttakun Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako haur, gazte zein helduen euskalduntzea sustatu eta sendotzeko 180.686,06 euroko laguntza jasoko du. Bi erakundeek bide horretan elkarrekin egindako lana nabarmendu eta eredugarritzat eman dute

Txintxarri

Ttakun Kultur elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak herritarren hizkuntza-ohiturak astintzeko helburu duen lankidetzaz hitzarmena berri dute.

Uztailaren 14an, Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdivia, Jon Antxordoki Euskara Batzorde burua eta Mari Karmen Ormazabal Ttakun Kultur Elkartearen lehendakaria 2021-2022 ikasturteko hitzarmena sinatzeko bildu ziren.

Ttakun Kultur Elkarteak 180.686,06 euro jasoko ditu alor ezberdinetako zazpi egitasmo aurrera eramateko. Aurreko ikasturtean ere ekarpen ekonomiko bera jaso zuen.

Aisiaren arloan etxeko txiki eta gazteei zuzendutako Amaraun Kluba eta Gazte-kluba eta 12 eta 18 urte arteko zuzendutako Kuadrillategi martxan izango ditu.

Helduen euskalduntzean ere lan eskerga handia egingo du elkarteak Solaskide eta Gurasolagun egitasmoen bitartez.

Euskal Jaia, udaberriko bertso-saioa eta beste hainbat ikastaro antolatuko ditu elkarteak *Kultur gintza euskararen eskutik* ekimenaren barruan.



Udaleko eta Ttakun Kultur Elkartearen ordezkariak, hitzarmena sinatzen. TXINTXARRI

Esku artean duzun TXINTXARRI aldizkaria zein bere edizio digitala ere babesteko dira laguntza honen bitartez.

Eta ezin ahaztu, Euskararen X. Maratoia. 2020. urtean egitekoa zen arren, bizi dugun egoerarengatik 2022. urteko urrira atzeratu da euskararen festa handia. Hurrengo ikasturtean prestaketekin hasiko da Ttakun Kultur Elkarteak.

Hitzarmen "eredugarria"

Udal ordezkariak urte zail hauetan Ttakun Kultur Elkartearekin duen hitzarmenari eutsi izana azpimarratu dute agerraldian.

Era berean, Euskara Batzordeko buru Jon Antxordokik, akordio horren bitartez, bi erakundeak Lasarte-Oria euskalduntzen jarraitzeko lan-lerro eta egitasmo nagusiak elkarrekin lantzen ari direla ekarri du gogora. "Ez da programa batzuk egiteagatik ematen den laguntza".

Ttakun Kultur Elkartearen lehendakari Mari Karmen Ormazabalek sinatutako hitzarmena eredugarria dela esan du. "Eredugarria, hizkuntza gutxiagotu bat berreskuratzeko lankidetzaz publiko-soziala ezinbestekoa delako; eta eredugarria ere, beste herri askoren erreferentzia garelako".



Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpeak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. TXINTXARRI

25.000 euroekin lagunduko du udalak Aterpearen jarduna

Uztailaren 13an, asteartearekin, sinatu dute udalak eta merkatarien elkarteak 2021erako hitzarmena

Txintxarri

Uztailaren 13an sinatu zuten Aterpeak eta udalak 2021erako hitzarmena. Agustin Valdivia Calvo alkateak eta Miguel Angel Prieto Aterpeko lehendakariak sinatu zituzten beharrezko dokumentuak, eta, horien bitartez Aterpeak 2021. urtean aurrera eramango dituzten jardueretarako marko gisa balioko duena. Sinadura ekitaldian Nuria Fernández Sozioekonomiako zinegotziak eta Ana Laureano Aterpeko lehendakariordeak ere parte hartu zuten, eta herritarrak merkatarien elkarteak aurrera eramango dituen kanpainen parte hartzerantz animatu zituzten.

Valdiviak adierazi zuen udalak espero duela, gaur egun bizi dugun egoeraren aurrean, hitzarmen horrek merkataritza biziberritzen eta udalerrira dinamizatzen laguntzea. Aterpeko lehendakari Prietok, bere aldetik, eskerrak

eman zizkion udalari, eta bereziki udaleko teknikariari, hitzarmena sinatu ahal izateko egindako ahaleginagatik.

Aterpeak jakinarazi du aurreikusitako jarduerak aurrera eramateko 47.203 euroko aurrekontua duela, eta udalak 25.000 euroekin lagunduko du aurrekontu hori. Honako jarduerak hauek dira udalaren hitzarmenarekin lagunduko direnak: Udaberriko festa; Lortu 1.000 euro kanpaina; Stock azoka; Bezeroaren hamabostaldia; *Pura suerte* kanpaina; Ferraren bila; Black Friday; Eguberrietako kanpaina; Publizitatea, sustapena eta prestakuntza; eta, Aparkalekua kanpaina. Lasarte-Oriako Udalak baliabide municipalen lagunduko du programatutako jarduerari zabalkundea ematen, eta espazio publikoak nahiz municipalak utziko ditu zehaztutako jarduerak garatzeko.



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkartearen bazkide zara?

ERRIGORAKO OTAR EDER BAT zozkatuko dugu izena ematen duzun bazkideen artean.

* Eman izena uztailaren 25a baino lehen.



harpidetza@ttakun.eus helbidean, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)



Sendoki kultur batzordeko kideek orain 40 urte hasi zuten biderei amaiera eman diotela iragarri dute. TXINTXARRI

Berrogei urte eta gero, lekukoa utzi dute

1981. urtean sortu zen Sendoki kultur batzordea. Euskal Herriko eta nazioarteko kultura Lasarte-Orian sustatu eta herrian zabaltzeko helburuarekin ekin zion bere ibilbideari. Orain, berrogei urte beranduago, bide horren amaierara iritsi direla iragarri dute

Txintxarri

Duela 40 urte, 1981. urtean sortu zen Sendoki kultur batzordea. Euskal Herriko zein nazioarteko kultura Lasarte-Orian sustatu eta herrian zabaltzeko helburuarekin hasi ziren martxan, baina, berrogei urte beranduago, lekukoa uzteko unea iritsi zaie, eta horren berri eman dute.

Gogora ekarri dute sorreratik antolatu dituzten hainbat eta hainbat kultur ekintza. Musika klasikoko kontzertuetatik hasita, Okendo plazan antolatu dituzten musika banden kontzertuak, Tolosako Ekinbide Etxearekin batera antolatutako nazioarteko abesbatza lehiaketako abesbatzen emanaldiak, eta, Txotxongiloen nazioarteko jaialdiaren antolaketa lanetan lagunduz.

Herriko San Pedro Jaietan ere ekintza ugari antolaketan parte hartu dute, euren laguntza eskainiz. Horien artean, esate baterako, Gipuzkoako Aurreku lehiaketan, Fandango eta Arin-

arin txapelketan (25 urtez), Euskadiko sokatira lehiaketarako kanporaketak, herri kirolak, kuadrilla eguneko ekintzetan, San Pedro Eguneko pertsona zein taldeko aitortza omenaldian, luntxean, eta abar. Eta, ezin ahaztu Santa Ana Egunerako kultur batzordeak egindako lana ere; desfilean eta parodiaren antolaketan ere lan ugari egin ditu taldeak.

Santa Ana Eguneko artisau azoka antolatzen igaro ditu, kultur batzordeak urte gehien. 35 urtez jarraian, hain zuzen ere. 2019. urtean izan zen azkena, iaz COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz bertan behera geratu baitzen.

Lekukoa uzteko garaia

Urte luzez artisau azokaren antolakuntza lanetan aritu ostean, orain arteko bide horri agur esateko unea iritsi zaiela iragarri dute, baina, ziurtatu dute esku onetan uzten dutela, artisau azokaren antolaketa;

udaleko kultura sailaren esku. Eta lan horietan desirarik onenak opa dizkiote.

Eskerrak ere eman nahi izan dizkiete urte luzez ondoan izan dituztenei. Komunikabideei zuzendu dira lehenik, euren ekintza guztien berri, "mimo handiz" emateagatik. Erakundeak izan dituzte gero gogoan: "Lasarte-Oriako Udalarari eta bertako politikariei, horrenbeste urtez guregan izan duten konfiantzagarrik". Udaleko langile Pasquier eta Oier ere ez dituzte bazter utzi nahi izan, eurak laguntzeko prest egon baitira beti, eta, baita ere Kultura, Gazteria eta Jaietako udal departamentua ere, elkarrekin horrenbeste urtez lanean aritzeagatik.

Era berean, gogoan izan dituzte eurekin ez dauden lagunak ere, eta, baita modu batera zein bestera kultur batzordeak antolatutako ekimenetan parte hartu duten pertsona guztiak: "Mila esker guztiagatik".



Iazko Santa Ana eguneko parodiako artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

Santa Ana eguneko parodiarako gonbidapenak, datorren astean

Uztailaren 26an ospatuko da Santa Ana Eguna, eta, aurten ere, iazko formatu berean egingo dute parodia

Txintxarri

Ezohikoa izan zen iazko Santa Ana parodia. COVID-19aren ondorioz, aldaketa batzuk egin behar izan zituzten antolatzaileek, eta, aurtengoak ere, bide beretik eutsiko diola iragarri dute.

Emanaldia Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan izango da, uztailaren 26an, astelehenez, 22:00etan hasita. Eta edukiera mugatua izango denez, herritarrek aurrez eskatu beharko dituzte sarrerak, datorren asteartetik, hilaren 20tik aurrera. Horretarako, kultur etxeko leihatila joan

beharko dute, goizez 10:00etatik 13:00etarako ordutegian, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, pertsonako bi gonbidapen eskuratu ahal izango dira.

Aurreratu dute akusatuak zuzenean epaituko dituztela, baina, parodiako zenbait pasarte aurrez egindako grabaketetan proiektatuko dituztela. Halere, gonbidapenik gabe geratzen diren ere izango dute parodia jarraitzeko aukera; izan ere, antolatzaileek jakinarazi dute zuzenean botako dutela, streaming bidez.



TXINTXARRI

Aldarrikapen koloreak

Lasarte-Oriako udal korporazioko zenbait kidek ostadarraren koloreekin margotu dute Euskotren geltokitik Mirentxura doan eskailera; helburua da LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak aldarrikatzea eta haiek ikusaraztea.

Ekain amaieran koloretako biniloak jarri zituen udalak bertan, baina egun gutxiren buruan baten batek bertatik kendu zituen.



Eskualde mailako agerraldia egin du Sarek Lasarte-Orian, anbulategi parean. Herritar ugari gerturatu dira. TXINTXARRI

Kontzientziatzeko eta mobilizatzeko asmoz

Euskal presoek pairatzen duten "salbuespen egoera" amaitzeko eskatzen jarraitzen du Sarek. Ekimenak iragarri ditu datozen asteetarako: bizikleta martxa uztailaren 22tik 24ra, eta manifestazioa Donostian, abuztuaren 21ean, larunbatarekin

Txintxarri

Sarek eskualde mailako agerraldia egin du Lasarte-Orian, anbulategi parean. Tokia ez du kasualitatez aukeratu, nahita baizik; larriki gaixo dauden euskal presoen egoera ekarri du gogora, Ibon Fernandez Iradi herritarrarena eta Garikoitz Arruarte hernaniarrarena bereziki: esklerosi anizkoitza, eta aldebiko u beitis akutua eta espondiolartropatia dituzte, hurrenez hurren, duela bederatzia eta hamasei urtetik.

Donetz Iradi osasun langileak jakinarazi ditu datu horiek, ekitaldian bertan. "Arreta multidiziplinarra jaso behar dute biek, iraunkorra, eta aditu desberdinek parte hartu behar dute: fisioterapeutek, neurologoek, erreumatologoek... Horrez gain, mila gauza zaindu behar dituzte". Iradik salatu duenez, euskal presoek ez zaie behar bezainbeste arreta ematen, ez dira behar bezala zaintzen, beste edozein herritarrek adina

eskubide duten arren horretarako. "Gaixotasun horiek degeneratiboak dira, hobera ez dute egiten, eta behar bezala tratatuak izateko, eriek espetxetik atera behar dute".

'Tipularen sehaska kanta'

Horrela izena du Lander Garro zinemagilea zuzentzen ari den dokumentalak. Larriki gaixo dauden euskal presoek gaia jorratuko du, Sareko kideek jakinarazi dutenez; eragile horrek sustatu du lana. "Formatu honetako lan asko ez dira egin gaiari buruz, eta oso eskertuta gaude", azpimarratu du Ixar Arteagak.

Crowdfunding kanpaina abiatu dute *Tipularen Sehaska Kanta*

BIZIKLETA ITZULIKO ZUMAIA-DONOSTIA ETAPAREKIN BAT EGINGO DU LASARTE-ORIAKO SAREK

dokumentalaren parte-hartzaileek, eta laguntzeko deia egin du Sarek, esteka honetan: <https://www.verkami.com/locale/eu/projects/30190-tipularen-sehaska-kanta>.

Datozen asteetako ekitaldiak

Azken urteetan bezala, uztail amaieran bizikletak hartuko ditu Sarek, eta Hego Euskal Herria zeharkatuko du hiru egunetan, euskal presoek aldeko aldarriak lau haizetara zabaltzeko asmoz. Uztailaren 22tik 24ra egingo dute ekitaldi hori. Gares-Oion, Sopela-Mundaka eta Zumaia-Donostia izango dira etapak. Azken horrekin bat egingo du eskualdeko Sarek. Lasarte-Oriako hitzordua 10:30ean izango da, Okendo plazan. Bertatik Errekalderraino joango dira, eta Usurbilgo zutabearekin bat egingo dute.

Bestalde, abuztuaren 21ean, larunbatarekin, "festa kutsuko" aldarrikapen ekitaldia egingo du Sarek, Donostian.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Udalekuak

Hitzak berak argitzen digu, urteko garai honetan kokatzen ditugula gure udaleku maiteak. Txiki eta gazteenentzat aisialdi aukera bikaina, nerabezaroan murgilduta daudenentzat abenturarako zirrikitu ederra eta heldu askorentzat lanerako lehen aukera, ikasketa prozesu ezin aberatsagoa eta guztiaren gaineratik ene ustez bizi esperientzia izugarria.

Txikitik ez nintzen izan udalekuen oso zalea. Udaleku itxietan pare bat aldiz parte hartu nuen eta irekietan sekula ere ez. Izandako esperientziak oso positiboak izan ziren eta horrek piztu zuen nigan hezkuntzarako, aisialdirako eta formakuntzarako begirada garatzea.

Azken hilabeteetako egoerak, ez du bermatu gazte zein haurrentzako aisialdi aukera duinak egotarik. Txikienek pairatu dituzten gabeziei, berandu bada ere, eman diete bide agintariei. Ikusita neurri egokiak hartuta eta alor honetan lan egiten duten pertsonen ardura zein konpromezua amaiezinak direla, gure etorkizuneko gizarteak euren aisialdian, sozializazio gaitasunetan, jolas praktikan, kirolean eta aniztasunean aritzeak dakartzan onurei uko egiteak, ekarriko lituzkeen ondorioen jabe izan dira. Azkenean!

Ahalegin handia egin behar izan dute lan hauetan aritzen diren eta orokorrean gutxi baloratzen ditugun aisialdi taldeek eta espero bezala, erantzuna zoragarria izaten ari da. Lasarte-Orian Ttakunek egiten duen bezala, inguruko beste herrietan ere hainbat aisialdi talde jo eta su aritu dira, aukera hau ziurtatze aldera eta haurrak hezkuntza ez arautuaren bidez hezteko eta hazteko prozesu honetan sinistearen onurak nabariak dira. Zorionak hauei guztiei. Hala ere, askotan baloratzen edota hausnartzera iristen ez garen bigarren alde positibo bat ere baduela honek aipatu nahi nuen; begiraleena. Hezkuntza arautuaren, ez arautuaren, kirol munduaren, aisialdi aukeren etab. luze baten irteera profesionalaren harrobi dira udalekuak. Askori mundu honetarako hurbiltzea erraztu eta ikaskuntza prozesura bideratzeko atea irekitzen diete. Beste askok, gustuko duten alor batean, etengabeko ikaskuntza iturria topatzen dute. Nahita edo nahi gabe, udalekuek, asko erakusten digutelakoan nago. Uste baina gehiago.

Urteetan zehar haur, gazte, begirale, koordinatzaile eta gaur egun guraso izatea egokitu zaidan aldetik, esan beharra dut hausnarketa hau azken etapa honetan egin dudala. Beste garai guztietako bizipenek, esperientziak eta bereziki ikaskuntzek egunerokoan pisu handia hartu baitute eta orain bigarren plano batean bizitzeak eta horrek eman didan ikuspuntuak, lehendik ikusten nizkion onura guztiei, lotura bat bilatu eta gure gizarte gaixo honen arnagunetzat ikusteraino eraman naute; aisialdi aukera ezinbestekotzat hartzeraino.


Hazi, hezi eta ikasi.

Eskualdeko ondare naturala eta kulturala ezagutzeko, ibilaldiak

Behemendi elkarteak ibilaldiak antolatu ditu Beterrri-Buruntza osatzen duten sei udalerrietan, baita Lasarte-Orian ere, uztailetik irailera. Lehen hitzordua Andoainen izango da, hilaren 18an, 10:30etik 12:00etara. Ordu eta erdiko bisita horretan, eliza eta dorretxearen artean ibiliko dira parte-hartzaileak. Izena eman nahi dutenek donostialdea@

behemendi.eus helbidera idatzi behar dute, edo 656 70 52 43 telefono zenbakira deitu behar dute. Aforoa hamabost pertsonakoa izango da asko jota, eta ekitaldia egin bitartean maskara eraman beharko da jantzita uneoro.

Lasarte-Oriako ibilaldia abuztuaren 7an izango da, larunbatez: *Aire zabaleko museoa*. Ordu eta erdi iraungo du, eta parte hartzen dutenek herriko historiaren pasarte ugari ezagutuko dituzte, muralak eta eraikinak bisitatu.



Uztailaren 1etik 14ra Lasarte-Orian atzemandako kasuen bilakaera erakusten duen grafikoa. TXINTXARRI/FLORISH

Koronabirusaren intzidentzia, igotzen

Ekain osoan atzemandako 63 kasuak gainditu ditu Lasarte-Oriak uztailaren, abuztua hasteko bi aste falta direla; hilaren 14ra arte 71 erregistratu dituzte. Datu ofizialen arabera, 1.820 herritar kutsatu ditu koronabirusak 2020ko martxotik, biztanleen %9,5

Txintxarri

Koronabirusaren intzidentzia igotzen ari zen apurka-apurka Lasarte-Orian, eta uztailaren 14an eman zuen gorakada nabarmena: hemeretzi positibo baieztatu zituzten egun horretan gure herrian –urtarrilaren 21etik ez ziren horrenbeste kutsatze detektatzen 24 ordutan Lasarte-Orian–, aurreko lau egunetan bezainbeste. Horren ondorioz, eremu horitik laranja igaro zen, eta joera horri eutsiz gero, gune gorrian sartuko da, SARS-CoV-2 birusaren intzidentzia altuko eremuan. Uztailaren 1etik 14ra arte 71 positibo erregistratu dira gure herrian, eta intzidentzia-tasa metatua 372,80 da –datu horiek

izan dira aldizkari honek kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik–.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuen arabera, 2020ko martxotik hona 1.820 lasarteoriatar (uztailaren 14ra arte) kutsatu ditu COVID-19ak, herrian bizi diren ehun biztanletik bederatzi pasatxo (%9,5). Orain arteko zenbakiak eskuan, 2020ko azaroa izan da intzidentzia gehieneko hilabetea; 275 positibo zenbatu ziren. Beste hiru hilabetetan gainditu du gure herriak 200 kutsatzeen langa: 2021eko apirilean eta urtarrilean (248 eta 218) eta iazko urrian (215). Ikusteke dago aurtengo uztailako kopurua zein den, baina dagoeneko

ekain osoan baino positibo gehiago zenbatu dira: 63 izan ziren aurreko hilabetean, eta uztailaren, 14ra arte, 71.

Eskualdean, gorria nagusi

Beterri-Buruntzako sei udalerrietatik hiru eremu gorrian daude: Astigarraga, Hernani eta Urnieta. Lasarte-Oria gertu dago, gune laranja, eta urrunxeago Andoain eta Usurbil, horian. Uztailaren 14an 46 kutsatze atzeman zituzten: hemeretzi Lasarte-Orian, 11 Andoainen, hamar Hernanin, bost Urnietan eta bat Astigarragan. Usurbilen, aldiz, kutsatze bat bera ere ez zuten detektatu.

Gaueko bilerak mugatu ditu LABIk

Euskal Autonomia Erkidegoko egoera epidemiologikoa aztertzeko, bilera egin zuen LABI batzordeak uztailaren 14an, asteazkenez, eta gaur egun indarrean dauden osasun neurriak eusteaz gain, erabaki zuen kalean jende taldeak elkartzeko debekua ezartzea. Horrela, ostiraletik aurrera, uztailak 16, gauerditik 06:00etara arte bizikideak

direnak soilik elkartu ahal izango dira kalean. COVID-19aren izurria kontrolatzeko asmoz hartu du erabaki hori LABIk, eta jai giroko topaketak ekiditea du helburu. Hain zuzen ere, azken egunotan zenbatutako positibo kasuen gorakadaren sorburua gisa horretako topaketetan dagoela iritzi baitute batzordeko kideek. Neurri berri hori ezartzearekin

batera, orain arte indarrean dauden gainontzeko neurriak mantentzea ere erabaki du batzorde horrek.

Azken asteetan COVID-19ak izan duen hedapenaren aurrean, zuhurtziaz jokatzeko deia egin du, beste behin, Iñigo Urkullu lehendakariak, eta maskara erabiltzeko deia egin die herritarrei. Lehendakariak uste du "maskararik gabeko harremanen ondorioz" gertatu dela kutsatzeen gorakada.



Nuria Fernandez Sozioekonomia burua eta Agustin Valdivia alkatea. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako negozio berriei bultzada ekonomikoa

Udalak iaz baino 25.000 euro gehiago bideratuko ditu ekintzaileen proiektuak laguntzera; guztira, 40.000 euro

Txintxarri

COVID-19aren garaian, Lasarte-Orian negozio berriak martxan jartzea sustatu nahi du Lasarte-Oriako Udalak, eta horretarako, 40.000 euro bideratuko ditu ekintzaileei dirulaguntzak ematera, iaz baino 25.000 euro gehiago. "Bultzada indartsua" eman nahi izan dio udalak egitasmoari, Agustin Valdivia alkateak azaldu duenez.

Fernandezek nabarmendu du "ekintzaile ugari" eskatzen dituztela dirulaguntzak urtero. 2020an, pandemia lehertu zen urtean, "txundituta" geratu zen udala, egoera onena ez izanda ere, ekintzaile ugari jo zutelako atea: "Bideratutako 15.000 euroak gastatu genituen".

Lerro bat gehiago aurten

Fernandezek aurreratu duenez, dagoeneko eskaera dezente jaso dituzte, baina oraindik egin ez dutenek, urriaren 31ra arte izango dute horretarako aukera. Iaz eta aurreko urteetan ez bezala, oinarriko lerroaz gain, osagarri bat ere sortu du udalak.

1. lerroan sartzen dira, adibidez, eragin handiko gunean dauden komertzioak; horien gastuen %60 lagunduko diruz udalak, 1.500 euro gehienez. Eremu horretatik kanpo dauden kasuan, gastuen %80 eta 1.800 euro, asko jota. Portzentaje eta kopuru bera jaso dezakete erretiroa hartu izanagatik itxitako negozio bati berrekiten diotenek. Beste bi kasu: jabeak desgaitasunen bat baldin badu

edo 55 urte baino gehiago, gastuen %80 lagunduko du diruz udalak, eta eskatzaileek 2.500 euro jasoko dituzte gehienez ere.

2. lerroan aurrez aipatutako laguntza horiek osatu ahalko dituzte jabeek. 500 euro gehiago jaso ditzakete kasu hauetan: ekintzailea emakumea bada, 30 urte edo gutxiago baditu, 0 eta 12 urte arteko haurren bat baldin badu (degaitasunen bat baldin badu, 16 urtera arte), edota hamabi hilabete edo gehiago badaramatza langabezia. Laguntza osagarria jasoko dute baita ere coworking espazio bat erabiltzen dutenek egitasmoa martxan jartzeko. Sei hilabeteko ekarpen ekonomikoa egingo die udalak, 600 eurokoa; proiektua enpresa bihurtuko balitz, beste sei hilabetez luzatuko luke laguntza. Eskatzaileek Lasarte-Orian erroldatuta egon beharko dute gutxienez urtebetez, eta jarduerara ekonomikoa herrian garatu beharko dute.

Fernandezek azpimarratu du bi lerro horietako laguntzen gehieneko kopurua 2.500 euro izango dela. 40.000 euro horietatik dirurik sobratuko balitz, eskatzaileen artean banatuko luke udalak, proportzionalki, beti ere bakoitzak kobratu duen kopuruaren %20 gainditu gabe.

"Euskara indartzeko" asmoz, laguntza ematen zaien negozioek hizkuntza horretan ere jarri beharko dituzte errotulu nagusiak. Halaber, eskatzaileei informazioa emango die Sozioekonomia batzordeak, Euskara batzordeko dirulaguntzen gainean.

Bakarkako lehen kanta sorta, etxean

'Banoa' izena du Aroa Lasa Letona herritarraren aurreneko bakarkako lanak. Gartxot Unsain Letona musikari eta lehengusuarekin batera, emanaldia eskaini du Manuel Lekuona kultur etxean. Diskoko abestiak ez ezik, bertsiotzat ere jo dituzte

Txintxarri

Aroa Lasa Letona musikariak *Banoa* estreinako lan laburreko kantekin eta zenbait bertsiorekin osatutako kontzertua eman zuen uztailaren 10ean Manuel Lekuona kultur etxean, larunbatarekin.

Aretoaren erdia beteta topatu zuten herritarrak eta Gartxot Unsain Letona musikari eta lehengusuak Manuel Lekuona kultur etxeko agertokira irtetea. Bertatik, aulkien guneko ezer ikusten ez zutela onartu arren, ezagunen bat topatzeko gai izan ziren saioak aurrera egin ahala, zenbait keinuk erakutsi zuten.

Banoa osatzen duten bost abestiez gain, Unsainek berak egindako piezaren bat eta kanta ezagunen bertsiotzat egin zituzten ere. Berri Txarrak, Maroon 5, Sen Senra edota Beatlesen abesti bana, esaterako. Arramazka rock taldeko kideak bertan ez baziren ere, bere lehen abestia eskaini zien, hunkituta.



Uztailaren 10eko kontzertua. TXINTXARRI

Oso modu soilean aritu ziren, hurbil eta goxo. Unsain oinutsik eta eserita; Lasak, berriz, eserita egoteko ahalegina egin bazuen ere, ez zuen lortu. Batera edo bestera abestea pentsatzean, aulkia alderantziz erabaki hartu

zuela onartu zien bertaratutakoei, hala ere, zutik eta dantzan erosoago zegoen.

Hasi aurretik urduri zegoela ere aitortu zien bertaratutakoei, kanta artean kontatu zizkien gauzen artean. Abestien arteko azalpenen bat eman zien, *Joker*, esaterako, izen bereko filma ikusi ondoren idatzi zuela, iradoki ziona eta sortu zizkien sentimenduak adierazteko behar bultzatuta.

Lehengusuarekin erabakiak ere eztabaidatu zituen unean bertan, inor begira ez balute bezala.

Ordubete zeramanean, amaitzeko unera gerturatzen ari zela ohartarazi zion publikoari. Baita mesede bat eskatu ere: bisik ez eskatzeko, horretarako abestirik prest ez baitzuten. Herritarraren lana Bandcamp atarian entzun eta erosi daiteke: <https://aroa.bandcamp.com/album/banoa>. Bertan azaltzen duenez, 2020ko udatik 2021eko udaberri artekoa izan da prozesua.



'Por hacer un favor' ikuskizunaren emanaldiaren uneetako bat. TXINTXARRI

Ekitaldi politiko xelebrea ikusi dute herritarrak Oriarten

Kale antzerkia bultzatuz egitasmoaren barruan, Trapu Zaharra taldeak 'Por hacer un favor' emanaldia egin du

Txintxarri

Hauteskunde kanpaina hasi baino bi aste lehenago Endika Martinez hautagaiak beldur eszeniko eraso bat izan du. Horri aurre egiteko coach batengana jo du eta honek terapia moduan ekitaldi politiko bat irudikatzea erabaki du. Horretarako, Martinez heldu aurretik Oriarteko jolastokian bildu ziren ikus-entzuleei laguntza eskatu die. Banderak, politikaria animatzeko abesti baten hitzak dituen paperak eta zenbait galdera banatu ditu, eta gaixoak egiten zuena egiten

zuela, babesa adierazi behar diotela azaldu die.

Galdutako segurtasuna berreskuratzeko ahaleginan, askotariko ariketak egin ditu Martinezek ordubete luze iraun duen saioan, psikologoak sare sozialetan arrakasta izango duen bideo bat grabatzeko zirela esan badio ere. Bat batean, ordea, ezusteko aitortza bat egin eta joan egin da. Hala ere, coachak ez du amore eman, eta oihartzuna izango duen bideo bat lortzen ahalegindu da. *Kale antzerkia bultzatuz* zikloko bigarren emanaldia izan da hori.

Parodia kultur etxean izango da, uztailaren 26an 22.00etan

SANTANA

Sarrerak eskuratzeko uztailaren 20tik aurrera kultur etxeko leihatilan

Pertsonako 2 sarrera eskuratu ahalko dira

Sarrerak doan. Kultur etxean jaso beharko dira uztailaren 20tik aurrera 10:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA
LAGA - ARMENTIA

Tto kun
KULTUR ETXETOKI

Kantua, dantza eta sagardoa

Koronabirusa tarteko, normalean San Pedro Jaietan ospatu ohi dituen kantu eta dantza jira eta sagardo dastaketa uztail hasieran ospatu behar izan ditu Ttakun Kultur Elkartek. Oriamenditik hasi eta Loidibarren pilotalekuraino, giro ederra ez da falta izan

Maitane Aldanondo

Ohiko datak baino beranduxeago heldu dira aurten kantu eta dantza jira eta sagardo dastaketa. Ttakun Kultur Elkartek sanpedroetan antolatu ohi ditu ekintza horiek, udalarekin elkarlanean, baina aurten jairik izan ez denez, uztailleko bigarren asteburuan eraman zituzten aurrera bi ekimen horiek.

Oriamendin elkartu ziren txistulariekin Xumela eta Plazadantza egitasmoetako kideak. Abiatu zirenean, goiza goibel antzera bazegoen ere kantuan hasi eta eguzkia ateratzea, dena bat izan zen. Helmuga zuten Loidibarren pilotalekura bidean, Andatza eta Uzturre plazetan eta Tximistarreta parkean emanaldi laburra egin zuten. Lehen horretan, bizpahiru kanta abestu eta dantza egiteaz gain, taldeko argazkia ateratzeko ere baliatu zuten geldiunea.

Pilotalekura heltzean ere girotze lana egin zuten. Ezin aproposagoa zen *Topa dagigun* kanta izan zen lehena, Ttakun Kultur Elkarteko Xabier Matxainen ahotsa gehituta.

Edalontzi faltan, eskuarekin keinua eginda edo kantutegiko liburuxka erabili zuten topa irudikatzen.

Dantzan eta kantuan jarraitu zuten sagardo dastaketan izena emana zuten lehen herritarrek heltzen joan ziren bitartean. Saioa amaituta, atsedean hartu eta sagardoarekin eztarria freskatzeko aukera izan zuten antolatzailerik gorde zizkieten mahaietan eserita.

Sagardoak lekukoa

Ezohikotik zenbait osagai izan bazituen ere, garrantzitsuena mantendu egin zuen Ttakun Kultur Elkartek data hauen bueltan egin ohi duen sagardo dastaketak. Pandemiaren mugek berotasun pixka bat kendu bazioten ere, pilotalekuan aurrera eraman zuten jardueran giro ona ez zen falta izan.

Sarreran gelarekin eskuak garbitu eta bakoitzak bere edalontzia jaso zuen, amaieran etxera eramateko aukera zuena. Pandemiak eragindako murritzeta eta neurrien ondorioz, bi txandetan bereizi zituzten izena eman zutenak;

lehena, 12:30ean, eta bigarrena, 13:30ean. Hala ere, batzuek, ordu bete beharrean, ia bi igaro zituzten bertan.

Kantu eta dantza jira isiltzean, bozgorailuko musikak lagundu zien mahaiak betetzen hasi zirenei. Kalez kale ibili zirenentzat mahai batzuk gorde zituzten eta batzu-batzuek aprobetxatu zuten Telleri, Saltsate, Sollaenea, Zubillaga eta Buenabistako sagardoa dastatzeko aukera.

Etengabe batetik bestera ibili ziren antolakuntzako kideek eraman zizkieten mahaietara botilak eta denak dastatzea izan zutela ziurtatu zuten. Hala ere, batzuek euren kabuz ere eskatu zieten probatu edo errepikatu nahi zutena edaria zerbitzatzeko ardura zutenei.

Elkarren artean hizketaldia topa eta norberak eramandako janariarekin lagunduta, giro atseginean pasatu zuten bazkalordua arteko tartea. Gehienak lasarteoriatarrek baziren ere, Lesakatik ondo pasatzeko gogoz etorri zen lagun talde bat ere bazen, eta nahia bete zutela zirudien.



Kantu eta dantza jirako parte-hartzaileak, Andatza plazan. TXINTXARRI



Tximistarreta parkea dantzaleku bilakatu zuten herritarrek. TXINTXARRI



Bost baserriko sagardoa eskaini zuen Ttakun Kultur Elkartek. TXINTXARRI



Egarria izanda ere, ohitura onak mantendu behar dira: eztarria freskatu aurretik topa egin zuen kuadrilla honek. TXINTXARRI



Lagunartean zein familian egiteko plan paregabea izan zen uztailaren 10ekoa. TXINTXARRI



Ezker-eskuin, lehen planoan, Idoia Lahidalga eta Oihane Puertas, Iزابako aurkezpen ekitaldian. Hiru saio egin zituzten. JONE LAHIDALGA

"Erronkaribarko emakumeei ahotsa eman diegu"

IDOIA LAHIDALGA ETA OIHANE PUERTAS DOKUMENTALGILEAK

'Tenpraren Guarpena' izeneko dokumentala ondu dute Lahidalgak eta Puertasek; Erronkaribar eskualdeko emakumeen historia herriz herri aurkezten hasi dira asteotan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua ikasi dute Oihane Puertasek (Lasarte-Oria, 1999) eta Idoia Lahidalgak (Eibar, 1999), Mondragon Unibertsitatean. Aurtengoa izan da azken kurtsoa, eta horrelakoetan ohikoa izaten den moduan, amaierako proiektu bat burutu behar izan dute bikiak. Nafarroako Erronkaribar eskualdera joan dira, bertako emakumeei ahotsa eman diete, eta "transmititu ez zen memoria berreskuratzeko

ariketa" egin dute. Ikerketa-txostena ez ezik, *Tenpraren Guarpena* izeneko dokumentala ere ondu dute; lehen aurkezpen saioak egiten ari dira aste hauetan zehar.

Lau aurkezpen saio egin dituzue orain arte, Erronkaribarren. Zer moduz?

Idoia Lahidalga: Oso gustura gaude. Zenbait herritan bizpahiru saio egin behar izan ditugu, espero baino jende gehiago etorri baita.

Oihane Puertas: Harrera oso ona egin diote ikus-entzuleek; eskertu

digute horrelako dokumental bat egitea, islatuta ikusi dute haien historia, eta ilusioa egin die kanpotik etorritako bi pertsonak interesa jarri izana. Jasotzen ari garen erantzuna izugarria izaten ari da; oso eskertuta gaude.

Zer esan dizuete ikus-entzuleek?

O.P.: Lehenengo emanaldia Izaban egin genuen. Emakume bat etorri zen guregana, begiak malkotan, eta esan zigun gauza asko gogorazi zizkiola dokumentalak. Sentsazio ikaragarria izan zen.

I.L.: Burgin egin genuen saioa eta gero, hau esan zigun ikus-entzule batek: "Bazen ordua bailarako emakumeei merezi duten garrantzia emateko". Gure helburua nagusiak bete genituela sentitu genuen: Erronkaribar eskualdeko historiaren zati bat kontatzea, eta bertako emakumeei ahotsa ematea.

Zuen proiektuaren helburuak aipatu dituzue. Horietan sakondu aurretik, nondik dator egitasmoa?

I.L.: Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi dugu; gradu amaierako lana izan da hau. Erronkaribar eskualdeko Izaba herrikoekin harremana dut; urtero, emanaldien zatiren bat erakusten dute, eta aukera polita iruditu zitzaidan lan hau egitea, horretan sakontzeko.

O.P.: Argi genuen han egin nahi genuela ikus-entzunezkoa. Bertako historiako pasarte ugari kontatu zizkidan Idoiak: kontrabandoan aritzen ziren gizonak edo Bardeetara joaten zirenak transhumantzia egitera; espartinak egitera Zuberoara joaten ziren enarak, 11 eta 18 urte arteko neska gazteak... Emakumeak, aldiz, eskualdean geratzen ziren. Ikusi genuen ez zela transmititu haiek egiten zutena, eta memoria hori berreskuratu nahi izan dugu.

I.L.: Proiektua erakunde edo elkarte batentzat egin behar genuen, eta Iزابako Kurruskla kultur elkartearekin jarri ginen harremanetan.

Zer garaitako memoriaz ari gara?

O.P.: XIX. mendekoaz. Esan bezala, gizonak eta neska gazteak kanpora joaten ziren lanera, eta bailara aurrera ateratzen zutenak emakumeak ziren: kultura, familia, etxea, hizkuntza... Haien memoria berreskuratzeko ariketa egin dugu.

I.L.: Belaunaldi desberdinetako lau emakumeren testigantzak jaso ditugu dokumentalean, XIX. mendeko historia ez ezik, oraingo errealitatea ere kontatzeko. Emakumeen testigantzek, guk geuk grabatutako irudiek, garai historikoen birsortzeek eta artxiboko irudiek osatu dute ikus-entzunezkoa.

"BAILARAKO IKUS-ENTZULEEK OSO HARRERA ONA EGIN DIOTE DOKUMENTALARI"

Izenburuan keinua egin diozue Erronkaribarko euskalkiari. Zer esan nahi du 'Tenpraren Guarpena'-k?

O.P.: *Tenpraren guarpena*-ren itzulpena 'denboraren memoria' izango litzateke. Erronkaribarko euskalkia erabiltzen zuten XIX. mendean, emakumeek batez ere.

I.L.: XX. mende hasierara arte hala hitz egiten zuten, eta gero galtzen joan zen belaunaldiz belaunaldi. Azken hiztuna Fidela Bernat izan zen, eta hari esker berreskuratu da euskalkia; ikerlari ugari joan ziren hura elkarrizketatzera. Esaldietako bat hau zen: "Guarpinari etzau akabatan tenpra", alegia, oroimenari ez zaiola amaizten denbora. Keinua egin diogu horri. **Lehen aipatu duzue Kurruskla kultur elkartearentzat egin duzuela lana. Zer moduz moldatu zarete haiekin?**

O.P.: Plazera izan da Kurrusklaekin lan egitea, beti izan dira gu laguntzeko prest: adibidez, aktoreak eta jantziak topatzeko. Erraztasun ugari eman dizkigute, eta oso gustura aritu gara haiekin.

I.L.: Dokumentalari buruz hitz egin genuenean, hasieratik esan ziguten 15 minutuko pieza bat nahi zutela. Guri ere ondo iruditu zitzaigun, eta lana editatzerako orduan lagundu gaitu iraupena aurretik zehazteak. Hala ere, egia da ikus-entzunezkoa ikusi dutenek esaten digutela motz geratu zaiela; seinale ona da hori.

Sare sozialetan sei hitzorduren berri eman duzue: horietatik bost, eskualdeko herrietan; seigarrena Urruñan, Lapurdin. Beste lurralde batzuetara ere joan nahi duzue?

I.L.: Bai, noski, asko gustatuko litzazuke. Adibidez, Eibarren egingo dugu emanaldi bat. Gure lana Erronkaribarren ardatzu da, eta hori ikertu ez dugun arren, uste dugu aplikagarria dela Euskal Herriko edozein landa-eremutara. Egia da, hala ere, gehiago kostatzen ari zaigula bailaratik kanpo hitzorduak lotzea.

O.P.: Errazagoa da guretzat eskualde horretan bertan aurkeztea lana, azken finean haien historia da eta asko interesatzen zaie. Batzuetan, kosta egiten zaigu, ez dakigulako zehazki norengana jo. Idoiak esan bezala, prest geundeke Euskal Herri osoan zehar aurkezteko egin duguna, harro gaude gure lanaz, gustura, eta ikusteak merezi du.

Irakurri elkarrizketa osoa
www.txintxarri.eus atarian

Herritarrak, mendian zein errepidean lasterka

LOTMEko Miguel eta Borja Granado eta Ibon Aguirre kideak Val d'Aranen izan dira trail modalitateko lasterketetan parte hartzen; Beasainen, berriz, Raul Gomez Margallo eta Gorka Gilek herri lasterketako 11 kilometrotako proba egin dute

Txintxarri

Val d'Aran by UTMB lehenengoz lehiatu da, Val d'Aranen, Katalunian. 2020. urtean zen jokatzeakoa, baina COVID-19a dela eta bertan behera geratu zen. Aurtengo uztailearen 9tik 11era, maila ezberdinetako ultra trail lau proba egin dituzte korrikalarien gozamenarako.

Guztira nazioarteko 3.116 lasterkari izan dira lehian, baita Lasarte-Oria Traileko hiru kide ere: Miguel eta Borja Granado aita-emeak eta Ibon Aguirre.

Bi probatan banatu dira LOTM elkarteak kideak: Borjak Camins d'Hèr (CDH) proba aukeratu zuen eta Miguel eta Aguirrek, berriz, SKY Baqueira Beret lasterketa. Hirurek markak paregabeak lortu dituzte.

6.500 metroko desnibel positiboa CDH proban, Borja Granado herritarrak 105,5 kilometroko



Miguel (ezkerrean) eta Borja (eskuinean) Granado, Val d'Aran by UTMBn. LASARTE-ORIA TRAIL

ibilbidea egin zuen. Uztailearen 9an, ostegunean goizeko 07:30ean hasi zuen lasterketa Les herrian, eta aurretik 6.582 metroko desnibel positiboko bidea zuen;

bederatzi gailur igo zituen, eta horietako bi 2.000 metro baino gehiagokoak ziren.

Hamasei ordu, hogeitun minutu eta 30 segundo behar izan zituen

herritarrak Vielhan zegoen helmugara iristeko. Bertan zituen senitartekoak zain.

Marka horri esker, sailkapen orokorreko 20. postua eta senior mailako 11.a eskuratu zituen Borjak. "Ongi kudeatu zituen indarrak, elikadura eta hidratazio estrategia egokia egin zuen, ez zuen digestio-arazorik izan... horrek guztiak horrelako proba gogor batean sekulako errendimendua izatera eraman zuen", adierazi dute LOTME elkarteak arduradunek.

Borjak bere sare sozialetan argitaratu duenez, "erokeria honetan jarraitu duen taldeari" eskertua dago eta hurrengo urtean Ultra Trail Mont Blanc probako Chamonixeko irteeran egotea espero du.

Lehenen artean

Borja iritsi eta ordu gutxitara, uztailearen 10ean, 09:30ean zehazki, Miguel Granado eta Ibon Aguirrek Pla de Bereten antolatu zen SKY proban parte hartu zuten.

Neguan Baqueira Bereteko eski pistak egon ohi diren eremuan 15 kilometroko eta 800 metro desnibel positiboko ibilbide zirkularra egin zuen bikoteak, eta bidean Cap de Clòsos (2.418 m.) eta Cap dera Sèrra (2.248 m.) igo behar izan zituzten.

Ez zuten lan makala egin. Aguirrek ordubete, 33 minutu eta 56 segundotan egin zuen

bidea; Miguelek, berriz, bi ordu 55 minutu eta bost segundotan.

Denbora horiei esker, Aguirre lehen hogeien artean sailkatu zen, eta Miguel M3 edo 65 urte baino gehiagoko korrikalarien mailako buru izan zen.

Beasainen, laugarren

Mendiko probetz gain, errepideko probetan ere izan ziren herritarrak. Herri lasterketak pixkanaka antolatzen hasi dira eta lau hilabeteko atzerapenarekin bada ere, Beasaingo herri lasterketa izan zen, uztailearen 11n. Bi proba jokatu ziren: bata 11 kilometrotakoa eta bestea 5,5 kilometroko proba mistoa.

Bealak taldeak lasterketa koronabirusak ezarritako baldintzetara egokitzea lortu zuten eta 200 korrikalari baino gehiago Beasaingo kaleetan lasterka izan ziren, hala nola, Raul Gomez Margallo eta Gorka Gil herritarrak, 11 kilometrotako proban.

Ia urtebete lasterketarik egin gabe egon ostean, lehenen artean izan ziren lehian. Raul Gomez Margallo, esate baterako, lasterketa buru izan zen gerora irabazle izango zen Unai Ibarrarekin batera. Baina ezin izan zuen Ibarraren erritmoa mantendu eta azkenean, laugarren postuan iritsi zen helmugara, 35:57ko denbora eginez. Gorka Gil, berriz, hamabigarren sailkatu zen. 37:11 minutu behar izan zituen.

Endika Gartzia, erreboteko Gipuzkoako txapeldun

Zubietako taldean lehiatzen da herritarra. Behar Zana garaitu dute Villabonan jokatutako finalean

Txintxarri

Villabonako Errebote plazak Gipuzkoako errebote finala hartu zuen, uztailearen 11n. Aurrez aurre Behar Zana eta Zubietako taldeak izan ziren. Azken talde horretan Endika Gartzia herritarra izan zen lehian eta gainerako taldekideekin batera Gipuzkoako txapeldun garaikurra jaso zuen.

Urtebete itxaron behar izan dute erreboteko taldeek Gipuzkoako txapelketa jokatzeak. Iaz COVID-19a tarteko, ez zen txapelketarik antolatzerik izan. Aurten, ordea, formatu laburrean izan bada ere, erreboteko

jokalariek eta zaleek neurketa ezberdinez gozatu ahal izan dute.

Uztailearen 3an Zubietan jokatu zen hiruko finalerdia. Villabonako Behar Zana, Oiartzungo Txost eta Zubietako taldeak izan ziren bertan borrokan. Guztiek guztien aurka jokatu zuten eta zubietarrek bi partidak irabazi zituzten finalerako sailkatuz; Behar Zana 6-7 garaitu zuten, eta Txost, berriz, 7-3.

Txost eta Behar Zanaren aurkako partidaren, berriz, billabonatarrek gailendu ziren 6-7 eta horrek finalerako sailkapena eman zien.

Behar Zana eta Zubietaren arteko finala, uztailearen 11n,



Gartzia (goiko ilaran, ezkerreko lehena) Zubietako taldekideekin. NOAUA ALDIZKARIA

igandearrekin jokatu zen Villabonako Errebote plazan.

Partida ikusgarria izan zen bi errebote elkarrekin jokatutakoa. Txapela ez zen Villabonan geratu, ordea, Zubietako taldeak jantzi zuen garaikurra, 13-7ko emaitzari esker.

Bestetik, binakako esku pilotako Zikuñaga Papelera torneoaren jokoan da eta Intzako kideak aurrera doaz.

Garaipenak, Hernanin

Uztailearen 8an, 1. kadete mailan lehiatuko den Peru Urdanpilletaren

txanda izan zen. Hernaniko Manterola lagun, Gaztelekuko Gaztañaga eta Arrillaga izan zituzten aurrez aurre eta 18-9 irabazi zuten partida.

Bestetik, aurreko zenbakian. 2. kadete mailako Diaz de Gereñu-Elosegui bikotea kaleratua izan zela argitaratu bagenuen ere, okerreko informazioa eman genuen. Bigarren faserako sailkatu da Intzako bikotea eta uztailearen 10ean, 18-16 garaitu zuen Txintxurreta-Azpeitia Hernaniko bikotea.

Bestalde, Intzako senior Jon Pello Artetxan, uztailearen 15ean eman zion hasiera txapelketari.

Aurten EPLEko Arangurenekin osatu du bikote herritarrak eta lehen partidaren, Epleko Urmeneta eta Zazpitarriko Beloki izan dituzte arerio.

Aldizkari honen edizioa itxi baino lehen ezin izan genuen emaitzarik jasotzerik izan.

Motorrak martxan dira

Euskadiko Mendi igoeren txapelketa martxan da. Jaizkibelgo igoerak eman dio hasiera eta hiru herritarrek parte hartu dute proban: Mansok, Mugak eta Kortajarenak

Txintxarri

43. Jaizkibelgo igoerak Euskadiko Mendi igoeren denboraldiari hasiera eman zion uztailearen 10 eta 11ko asteburuan. Lezotik Hondarribira doan GI-3440 errepidean, 65 ibilgailu izan ziren ia 5 kilometro eta erdiko ibilbidean barrena denbora onena lortzeko borrokan. Horien artean izan ziren Aitor Manso, Pablo Muga eta Ekaitz Kortajarena herritarrak.

Parte-hartzaileek entrenamendu bakarra egin ahal izan zuten lasterketako bi txandak baino lehen. Guztietan azkarrena Joseba Iraola izan zen. Bere denborarik onena bi minutu eta 23,389 segundokoa izan zen.

Herritarren artean, Aitor Manso izan zen sailkapenik onena lortu zuena. BRC B49 kotxearekin CM Promo mailako hirugarren postua lortu zuen bi minutu eta 46,588 segundoko igoerari esker.

Mansok Jaizkibelgo igoera "etxe ondoko proba" dela adierazi du. "Oso ondo ezagutzen dut ibilbidea eta eroso igo nintzen".

Entrenamenduetan CM Promo mailako bigarren denborarik onena egin zuen (2'54,463") eta horrek lasterketarako indarrak eman zizkion.

Lehen txandan denbora hobetzea lortu zuen (2'47,827"), baina arazo teknikoak medio, bigarrenetan ibilgailuak ehuneko ehunekoa eman ezin izan zuela onartu du. "Aldagailuko pieza batekin arazoa izan genuen eta ezin izan genuen ezer egin. Nire kotxeko aldagailua enbrage edo lozagiari gabea da; hirugarren martxa sartu dezaket hori gabe. Arazo teknikoa dela eta, lozagia erabili behar izan nuen eta horrek denbora galtzea suposatu zuen".

Hala ere, igoeran lortutako emaitzekin pozik da herritarra. "Gustura nago kotxe berriari pixkanaka-pixkanaka esku hartzen noalako. Ea hurrengo lasterketarako hobetzen dugun.

Baina pauso handi bat eman dugu dagoeneko".

Izan ere, berriro ere, auto eta maila berrira moldatzen ari da gidaria. "Jendeak hamar urte daramatza igoerak egiten, ni lehengo urtean hasi nintzen eta aurten kotxe berria dut. Nahiz eta aurtengo bigarren lasterketa izan, aurrean gaudela sentitzen dut. Azkar goaz egia esan", onartu du.

Gipuzkoako txapelketa helburu

Lortutako postuari esker, hasi berri den Euskal Herriko txapelketan bigarren postuan sailkatu da.

Joseba Iraola da buru eta txapela oraingoz eskuratzina dela jakitun da Lasarte-Oriako gidari gaztea. "Iraolak beste maila batean lehiatzen du. Bere kotxeak eta nireak ez dute zer ikusirik. Esate baterako, motor ezberdina dute. Nireak 200 zaldi ditu eta bereak gutxi gorabehera 450 izango ditu. Nirearen bikoitza da hori".

Gipuzkoako txapelketan berriz, lehen postuan da eta hori eskuratzeko lan egingo duela aitortu du herritarrak. "Oraingoz lehen postuan gara eta bertan jarraitu nahi dugu".

Turismo mailan

Bestalde, Pablo Muga eta Ekaitz Kortajarena herritarrak turismo mailan lehiatu ziren.

Mugak Renault Clio Sporta gidatzen egin zuen ibilbidea eta azken igoeran egin zuen denborarik onena, 3:13.672. Sailkapen orokorreko hamaseigarren eta A2 mailako bosgarren izan zen.

Kortajarenak, berriz, entrenamenduetan istripua izan zuen eta Citroen Saxo VTSak eskuin aldeko atzealdean kolpe ederra jaso zuen. Nahiz eta herriko gidaria ongi egon, kotxeko egoera dela eta, ezin izan zuen lasterketan jarraitu.

Euskadiko Mendi igoeren txapelketak, guztia ondo bidean, lau hitzordu izango ditu aurten:

jokatu berri den Jaizkibelgo igoera eta iraila eta urrian aurreikusitako dauden Jatako igoera, Aiako igoera eta Urrakiko igoera.

Bi hilabeteko atsedena izango da beraz txapelketan, eta autoak prest izateko lan egingo dute herritarrek. Entrenamendu modura, Nafarroako txapelketako probetan parte hartu ahal dute. Uztailearen 31n, esate baterako, Etxalarko igoera izango da eta Aitor Mansok parte hartuko duela aurreratu du.



Aitor Manso, Jaizkibelgo igoerako txandetako batean lehian. RUBEN MONTORI

Aurrekontu Irekiak 2021

Denona, erabakia. Denona, etorkizuna.

AUKERATU GIPUZKOAREN ETORKIZUNA ERAIKITZEKO PROIEKTUAK

Herritarren proposamen ugari jaso ditugu eta proiektu bihurtu ditugu. Aukera ditzagun gure lurraldearentzat onuragarrienak direnak. Parte hartu gipuzkoa.eus/partaidetza

Gipuzkoak badu etorkizuna.

Proiektuen bozketa: 2021eko ekainaren 30etik uztailearen 25era



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Donostia Arraun Lagunak, etxean nagusi

Donostiako badiako uretan garaile izan da Aiora Belartietak kide duen trainerua; Hondarribia, berriz, hirugarren izan da. Edinor proban, berriz, Donostiako eskifaia hirugarren izan da, eta ondorioz, Orio Orialkik hartu du Euskotren Ligako lidertza

Txintxarri

Donostia Arraun Lagunak eta Orio Orialki. Euskotren Ligako lehen asteburuko garaile berak izan dira, bigarrenen ere. Tamalez, Euskotren Ligako burua aldatu da; egun Orio Orialki da lehena, Donostia Arraun Lagunak taldearekin berdinduta.

Uztailaren 10ean, V. Donostiarra bandera - Turismo Castilla-La Mancha bandera jokatu zen Donostiako badiako uretan eta Aiora Belartietak herritarrak eta Donostia Arraun Lagunak eskifaia kideek bandera altxa zuten.

Lugañene nagusi izan zen hasieratik ongi ezagutzen duen estropada gunean. Ziabogan atzetik zihoan Orio Orialkiri lau segundoko tartea atera zion eta helmugan, berriz, zazpi segundo izan ziren.

Intza Fernandez kide duen Hondarribia Bertako Igoailuak traineruak atzetik aurrera egin zuen. Laugarren postuan ziaboga egin arren, itzuliko luzean Donostiarra Lacturale harrapatu eta hirugarren sailkatu zen 11 segundora. Donostiarra Lacturale hamabi segundora iritsi zen.

Emaizta horiei esker, Donostia Arraun Lagunak sailkapeneko buru segitzen zuen, 11 punturekin; Orio Orialkik bederatzi puntu



Belartietak, baborreko hankeko postuan, eta bere taldekideak, lanean. A. ARRIZABALAGA

zituena, Donostiarra Lacturalek sei puntu eta Hondarribia Bertako Igoailuak lau puntu.

Zierbenan, hirugarren

Igandean, ordea, sailkapeneko aldaketa izan zen. Orio Orialkik Zierbenan lehiatutako Edinor Bandera irabaztearekin batera sailkapeneko lidertza ere lortu baitzuen.

Lehia handiko estropada izan zen: Donostiako bi traineruak izan ziren ziaboga iristen lehenak, eta hirugarren izan ziren oriotarrak bi segundoko galerarekin.

Bigarren luzean, berriz, Orio Orialkiko kideek indarrez ekin zioten, eta bai Donostiarra

Lacturale, baita Donostia Arraun Lagunak ere aurreratu zituen, helmugara lehen iristeko. Donostiako bi eskifaiekin arteko lehia Donostiarra gailendu zen eta Donostia Arraun Lagunak hirugarren izan zen. Hondarribia 11 segundora iritsi zen.

Ondorioz, sailkapeneko Orio Orialki da lehena, nahiz eta Donostia Arraun Lagunak ere puntu berak izan: guztira, hamahiru.

Donostia Arraun Lagunak berriro ere sailkapeneko lehen postua eskuratu nahi du. Uztailaren 17an eta 18an Orioko eta Getxoko uretan neurtuko dituzte indarrak Euskotren Ligako traineruek.

pelotoiak: St-Rambert-en-Bugey/Virieu-le-Grand; Frontonas/Morestel; Anglet/Culoz; Virignin/Montreal-la-Cluse eta Artemare/Les Plans d'Hotonnes.

Lasarteoriatarrak lehen egunean pelotoian helmugaratzea lortu zuen arren, gainerako egunetan ezin izan du lehen postuengatik borrokatu. Carbayedak 53. postuan amaitu du proba 29 minutu eta 15 segundora. Gipuzkoako selekzioa, berriz, hamabosgarren postuan sailkatu da.

Carbayeda, UCI mailako Ain Bugey Valromey Tourrean

Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu da herritarrak Frantziako Auvernia-Rodano-Alpeak eskualdeko proban

Txintxarri

Uztailaren 10etik 14ra, Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako Beñat Carbayeda Frantziako Auvernia-Rodano-Alpeak eskualdean antolatzen den Ain Bugey Valromey

Tourrean lehiatu da. Gipuzkoako selekzioak UCI junior mailako probarako aukeratutako boskoteko kide izan da herritarrak.

Bost etapa lehiatu ditu nazioarteko 34 taldeko txirrindulariez osatutako

Ostadar Atletismoa taldeko kideek, denboraldiari agur

Furundarena eta Rekondo Espainiako Federazio arteko txapelketan lehiatu dira Euskadiko selekzioarekin

Txintxarri

Atletismoko Espainiako Federazioen arteko txapelketa jokatu zen L'Hospitalet de Llobregaten, Katalunian, uztailaren 10 eta 11ko asteburuan eta Euskadiko selekzioak zazpigarren postua eskuratu zuen. Horietako puntu batzuk Ostadar Atletismoko Naroa Furundarena eta Mainer Rekondo gazteek eskuratu dituzte.

Furundarenak jauzi hirukoitzeko hirugarren postua eskuratu zuen, 12,54 metroko jauziarekin. Rekondo, berriz, zortzigarren sailkatu zen, 38,38 metroko jaurtiketarekin.

Biek helburuak bete zituztela adierazi du Oskar Goikoetxea entrenatzaileak. "Biek denboraldiko sailkapenean zuten postua hobetu zuten txapelketan eta pozik gaude".

Ordizian ere lehia

Bestalde, uztailaren 10ean, Ordizian antolatu zen proba librean Ostadar Atletismoko Mainer Abetez eta Enara Gonzalezek gain, Atletico San Sebastianeko Nerea Eugi eta Renteria taldeko Jose Ramon Latorre herritarrak lehiatu ziren.



Ostadar atletismoko kideak. OSTADAR ATLETISMOA

Enara Gonzalezek luzera-jauzi proban parte hartu zuen eta bere marka ondu zuen 5,73 metroko jauziari esker.

Gainerako herritarrak 100 m. lasterketako saioetan borrokatu ziren. Eugik 12,70" behar izan zituen proba egiteko; Abetek, 13.09" eta Latorrek, berriz, 11.64".

Denboraldi irakurketa

Txapelketa horiek denboraldiko azkenak izan dira Ostadar Atletismoa taldeko kideentzat. Horregatik, denboraldiko irakurketa paregabea egiten dute arduradunek. Eta hurrengo denboraldian, eskola mailako gaztetxoek ere lehiatu ahal izatearen esperantza dute.



OSTADAR SKT

Ostadar SKT, ezin finalera iritsi

Ostadar SKTko B14 mailako taldeak, uztailaren 9an, Donostiako Cupeko finalerdiak jokatu zituen Europa League fasean. Talde urdin-beltzak Set11 Catalunya B taldea izan zuen arerio. Partida berdindua izan arren, amaitzeko hiru minutu falta zirenean egin ziren ihes finalerako sailkapenak Ander Marcos eta Igor Astiazaranek zuzendutako jokalariei.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.

Deitu 943 37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 16	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00
LARUNBATA, 17	GANDARIAS-URIBE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 18	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 19	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 20	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 21	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 22	DE ORUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00


A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen


Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 16




Larunbata, 17




Igandea, 18




Astelehena, 19




Asteartea, 20



Asteazkena, 21



Osteguna, 22



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	6		2			9		1
		8		4		6		2
1		2	6				5	4
		7	3					8
3	8			2				
	5	1	8		9	4		
7			4	8			6	
		3	7				4	9
	4	6			5	1		7

OHARRA

Biyak Bat elkarteko jardueren eta Urrezko ezteien bikoteen izena ematea martxan

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, egoitzak eskaintzen dituen jardueretan izena emateko epea ireki da. Jarduerak zumba, yoga, lerroko dantzak, aretoko dantzak, sevillanak, memoria, gimnasia eta eskulanak dira.

Egoitza irekitzen denean guztia prest izan nahi dute eta bazkideei izena emateko eskaera egiten diete. Horretarako bazkideek bulegoko ordutegian (asteartea eta osteguna, 10:30etik 12:30era) egin behar dute inskripzioa. Taldeak murriztuak izango direla ere nabarmendu dute.

Era berean, elkarteak gogorarazten du, irailaren 15era izena eman ahalko dutela 2020. urtean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarteko bazkideek. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi beharko dituzte inskripzioa egiterakoan. Inskripzioa hau ere egoitzeko bulegoan egingo da.

Lasarte-Oria aldizkariko harpidetza

Lasarte-Oriako elkarte eta eragileek argitaratutako Lasarte-Oria aldizkariak bere 83. zenbakia argitaratu du ekainean. Lasarte-Oria aldizkariaren helburua, besteak beste, Lasarte-Oriako historia berreskuratu eta transmititzea da. Aldizkariko harpidedun diren herritarrek etxean jasoko zuten dagoeneko eta bertan dauden herriko elkarten berriak edo artikulua historikoak irakurriko zituzten.

Lasarte-Oria aldizkaria ikusgarri eta eskuragarri dago www.danokkide.es orrialdean, 48. zenbakitik aurrera. Hala ere, bada eskura izan nahi duenik ere. Horregatik, etxean paperezko zenbakia jasotzeko pausoak azaldu ditu aldizkaria kudeatzen duen Danok Kide elkarteak.

Aldizkaria doakoa da. Interesatuak aldizkarian bertan aurki daitekeen harpidetza-orria bete, moztu eta Danok Kide elkarteko postontzian (Blas de Lezo 13 baxua) utzi behar dute. Aldizkaririk eskura ez dutenek, info@danokkide.es helbidera bidali dezakete eskaera. Mezuan aldizkaria jaso nahi duen pertsonaren izena eta helbidea zehaztu behar direla nabarmendu du Danok Kide elkarteak.

Kiroldegian, udako ordutegia martxan

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jakitera ematen du ekainaren 30etik aurrera udako ordutegia indarrean dela. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte iraungo du ordutegi horrek.

Ordutegia honakoa izango da:

- Astelehenetik ostiralera:
 - Kiroldegia: 7:00-13:00 / 16:00-22:00.
 - Igerilekua: 7:00-12:30 / 16:00-21:30.
 - Mitxelin Kirol Gunea: 10:00-12:30 / 17:00-22:00.
- Larunbatetan:
 - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
 - Mitxelin Kirol Gunea: 9:00-13:00.
- Igande eta jai egunetan:
 - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
 - Mitxelin Kirol Gunea: Itxita.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

LANA

ESKAINITZA
Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako erdiguneko taberna batean lan egiteko. 666 461 595..

ESKARIA

18 urteko neska bat naiz. Unibertsitate ikasketak egiten ari naiz, eta lan bila nabil ekainerako eta uztaileko, umeak zaintzen batez ere. Harremanetarako zenbakia, 688 64 38 60. 16 urteko neska bat naiz. Ekainean eta uztailean umeak orduka zainduko nituzke: txokoetara eraman eta jaso, ikastolako lanak egiten

lagundu...
Harremanetarako zenbakia, 640 10 64 40.
Pertsona eskaintzen da pertsona adinduen barneko zaintzaile modura lan egiteko. Orduka ere izan daiteke Erreferentzia onak eta esperientzia du. Harremanetarako zenbakia, 622 747 833.

Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritza laguntzaile, tabernan

pintxoak egin, garbiketa lanak egin, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87.
Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketean. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU
Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, 100 eurotan biak. Harremanetarako zenbakia, 670 60 74 95.

Txerriak (9 txerrama), apotea eta txerrikumeak salgai. Harremanetarako zenbakia, 607 668 603.

Mountainbike salgai. Beltza eta arroxka. 8 urtetik aurrerako haurrentzako. Kaskoa, argiak eta osagai guztiak. Berria bezala. 150 euro. Harremanetarako zenbakia, 637 53 58 51.
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@
ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galarzi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 16

LASARTE-ORIA Kale antzerkia
Hirugarren kale antzerki saioa ikustera ateratzeko aukera izango dute herritarrek. Eidabe taldeak *Gora Kasete* antzerkia eskaini die lasarteoriarrei. Euskaraz izango da.
Oriarte BHI Landaberri eraikineko patioa, 19:00etan.

AMASA-VILLABONA Kontzertua
Idoia Asurmendi Aramaioko musikariak emanaldia eskainiko du, Errebote plazan egingo dutela iragarri duten arren, eguraldi txarra eginez gero, Gurea antzokira lekualdatuko dute ekitaldia.
Errebote plaza, 19:00etan.

ANDOAIN Kontzertua
AMAK musika taldeak kontzertua eskainiko du. Alaitz Telletxeak, Maixa Lizarrabarrek, Amaia Orejak eta Kristina Solanok osatzen dute taldea, eta trikiti eta pandero doinuekin gozaraziko dute bertaratzaren diren ikus-entzuleek.
Goikoplaza frontoia, 21:30ean.

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Kontzertua
Baionako Willis Drummond musika talde aski ezaguna igoko da Manuel Lekuona kultur etxeko oholatza gainera, eta euren rock doinuek eskainiko dizkiete bertaratzaren diren ikus-entzuleei. Sarrerak 12 euroren truke daude salgai.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

AMASA-VILLABONA Zirkuitua
Etxeko txikienek oztopo zirkuituan parte hartzeko aukera izango dute. Antolatzaileek iragarri dute 8 urtetik gorako haurrentzat izango dela ekintza hori.
Errebote plaza, 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era.

ANDOAIN Dantza emanaldia
Kimua Dantza Kolektiboak *Generoa* izeneko emanaldia eskainiko du. Genero ikuspegiaren gaineko lanketa berritzailea eskainiko dute emanaldiaren bitartez, eta gorputzaren mugimenduen gidatuta, hartzen diren rolak edo



LASARTE-ORIA Santa Ana parodia Aurtengo Santa Ana Eguneko parodia Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan izango da, uztailearen 26an, astelehenez, 22:00etan hasita. Edukiera mugatua izango denez, herritarrek aurrez eskatu beharko dituzte sarrerak, datorren asteartetik, hilaren 20tik aurrera. COVID-19ak eragindako pandemia medio, iazko formatu berari eutsiko dio aurtengoak ere; horrela, epaiketa zuzenean ikusi ahal izango dute bertaratzaren diren, baina beste hainbat pasarte aurrez egindako grabaketan bidez proiektatuko dituzte.
Manuel Lekuona kultur etxea, 22:00etan.

ezartzen direnak hautemateko aukera izango dute ikus-entzuleek.
Leitzarango Otieta parkea, 18:00etan.

ANDOAIN Blues gaua
Blues gauaz gozatzeko aukera izango da. Antolatzaileek iragarri dutenez, maila handikoa izango da: Sinead Savage eta Travellin' Brothers arituko dira zuzenean.
Joxe Arregi plaza, 19:00etan eta 20:30ean.

IGANDEA 18

AMASA-VILLABONA Antzerkia
Barsanti teatroa taldeak *Kale Gorrian* obra eskainiko du. Berrogei urtez bertan bizi izan diren etxea utzi behar duten aiton-amonaren istorioa kontatzen du antzerkiak.
Errebote plaza, 19:00etan.

OSTEGUNA 22

LASARTE-ORIA Zinema
Okendo zinema taldearen eskutik, *C'esta la vie* filma ikusi ahalgo da. Zinema kalean egitasmoaren barruan antolatu dute.

Oriarte BHI Landaberri eraikineko patioa, 22:00etan.

USURBIL Kontzertua
VI. Laboaren Uzta egitasmoaren baitan, Aire Ahizpak musika taldeak emanaldia eskainiko du. Urepeleko hiru ahizpek osatzen dute taldea; Mirenek, Amaiak eta Paxkalinek. Xalbador bertsolariaren bilobak dira, eta familia giroan ikasitako bertso eta kantu herrikoiak abesten dituzte. Mikel Laboa plazan egingo dutela iragarri dute antolatzaileek, baina, eguraldi txarra eginez gero, Sutegei kultur etxera lekualdatuko da. Uztailearen 20ra arte izango da ekitaldira joan ahal izateko izen emateko aukera.
Mikel Laboa plaza, 22:00etan.

OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA Dantza zirkuitua
XVII. Dantza Zirkuitua izango da. Hiru hitzetan ikuskizuna eskainiko dute. Emanaldi hori Euskal Herriko hiru konpainien hiru piezek osatzen dute; bakoitza 20 minutukoa da, eta sei artistek parte hartuko dute: Myriam Perezek, Jone Amezagak, Nerea

ZINEMA

USURBIL

Ostirala: 21:30.
Larunbata: 21:30.
Igandea: 21:30.

URBIL

¡A todo tren! Destino Asturias

Ostirala: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.
Larunbata: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.
Igandea: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.

Expediente Warren: Obligado por el demonio

Ostirala: 17:15, 18:55, 20:45, 22:10.
Larunbata: 17:15, 18:55, 20:45, 22:10.
Igandea: 17:15, 18:55, 20:45, 22:10.

La Purga Infinita

Ostirala: 17:05, 19:40, 22:15.
Larunbata: 17:05,

19:40, 22:15.
Igandea: 17:05, 19:40, 22:15

Operación Camaron

Ostirala: 16:15, 19:00, 20:30, 22:05.
Larunbata: 16:15, 19:00, 20:30, 22:05.
Igandea: 16:15.

Peter Rabbit 2: A la fuga

Ostirala: 15:50, 16:40, 18:15, 19:05, 20:40.
Larunbata: 15:50, 16:40, 18:15, 19:05, 20:40.
Igandea: 15:50,

16:40, 18:15, 19:05, 20:40.

Viuda negra

Ostirala: 15:55, 17:40, 19:00, 20:30, 22:05.
Larunbata: 15:55, 17:40, 19:00, 20:30, 22:05.
Igandea: 15:55, 17:40, 19:00, 20:30, 22:05.

Gurrutxagak, Oihana Vesgak, Amaia Elizaranek eta Xabier Zeberioek.
Oriarte BHI Landaberri eraikineko patioa, 19:00etan.

ANDOAIN Kontzertua

Migel Zeberioek zuzendutako Et Incarnatus orkestrak emanaldia eskainiko du Urmuga mendiak eta musika egitasmoaren baitan. Leitzarango Otieta parkean egingo dutela iragarri dute, baina jakinarazi dute eguraldi txarra eginez gero bertan behera geratuko dela ekitaldia.
Leitzarango Otieta parkea, 18:00etan.

AMASA-VILLABONA Kontzertua
Lasarte-Oriako Makulu Ken musika taldeak kontzertua eskainiko du. Euskal Afrobeat doinuekin gozatu ahal izango dute bertaratzaren diren ikus-entzuleek. Erreboteko plazan egingo dutela iragarri duten arren, eguraldi txarra eginez gero, Gurea antzokira lekualdatuko dutela jakinarazi dute.
Errebote plaza, 19:00etan.

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA Kontzertua
Olatz Salvador Donostiako musikariak bere azken lana, *Aho Uhal* izeneko ekarriko du Manuel Lekuonako oholatza gainera. Sarrerak 12 euroren truke daude salgai.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

AMASA-VILLABONA Ikuskizuna
Korrontzi musika taldeak eta Oinkari dantza taldeak *Koplariak* emanaldia eskainiko dute. Kopla zaharrak eta doinu berriak bateratzen dituen ikuskizuna ikusteko aukera izango dute

bertaratzaren diren ikus-entzuleek. Euskarazko kopla izango dira ikuskizunaren muina, horietako gehienak Xabier Amurizarenak.
Errebote plaza, 22:00etan.

IGANDEA 25

AMASA-VILLABONA Kontzertua
Gorka Hermosa eta Garikoitz Mendizabalek Folklore Fusionatua emanaldia eskainiko dute; tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen XXI. mendeko euskal kulturari begirada berria egin diote.
Txistulari plaza, 13:00etan.

ASTELEHENA 26

LASARTE-ORIA Parodia
Santa Ana parodiaren emanaldia. Sarrerak, uztailearen 20tik aurrera kultur etxeko leihatilan, doan. 10:00etatik 13:00etarako ordutegian eskura daitezke.
Manuel Lekuona, 22:00etan.

UZTAILEAN ZEHAR

LASARTE-ORIA Erakusketa
Elkartea sortu berri duen Dinagu Emakume Sortzaileen Kolektiboak ekimen berri bat jarri du martxan. Kolektiboaren izaera mugikorra definitzen duen *Nomadak Gaitun* azoka ibiltariak, eta Azpeitian egingo dute lehen geldialdia. Elkarlanean, modu kooperatiboan, antolatutako azoka izango da, eta, moda, bitxigintza, dekorazio zein ilustrazioaren munduan murgilduta lanean dabiltzan Euskal Herriko hogeitaz emakume sortzaileen produktuak izango dira ikusgai bertan. Azokara gerturatu ezin dutenentzako erakusketa bat ere prestatu dute herriko Kool Studion. Kool Studio, dendako ordutegian.

Ttakun
30 urte

EGIN ZAITEZ BAZKIDE! 54€ urtean

Euskara eta kultura bidelagun!

zuk

54€
urtean

ordaindu

guk

Euskara eta
kultura
sustatuko
dugu

Errenta
aitorpenean

%20ko
kenkaria
izango duzu



Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian

On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ **Jaiotze data:** _____


Helbidea: _____ **Herria:** _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideak irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48